

## POS-G13

*PD en Filosofía, Ciencia y Valores***MORALAZ GAINDIKO ANIMALIA NIETZSCHEARRAREN BALIAGARRITASUNA EGUNGO JARRERA POST-HUMANISTEN ERRONKENTZAT.**

Aitor Erkizia

EHU

Ikerketaren helburua Animalia Ikasketen diziplinak XXI. mendeaz gero bizi duen biraketa kontinentalean Nietzscheren animaliatasunak zein funtzio jokatu duen ulertzea eta azken honen berrirakurketa eginaz diziplinan nagusitzen doazen jarrera post-humanistek eraikitzen diharduten gizatasuna moralki baldintzatuak ez dauden interpretazio berrietarantz desplazatzea da. Ikerketak mantentzen duen hipotesiaren arabera, Animalia Ikasketetan lantzen diren arazoak oraindik ere espezie-helburutasun diskurtsoan errotuak jarraitzen duten bitartean, jarrera post-humanistek eskatzen duten gizatasun berria, ekologikoagoa, gainontzeko espezieekiko adeitsuagoa, paradoxikoki hobekuntza morala bilatzeari uko egingo dioten aberetze-estrategiak jarraitzetik iritsi beharko lukeela ondorioztatzen da Nietzscheren animaliatasun kontzeptutik. Lau ataletan banatzen da doktorego-tesi hau, bakoitzari jarduera-zenbaki berdineko helburu eta hipotesi bana dagokiolarik. Lehen atalarekin egungo eztabaida nagusiki biltzen duen Animalia Ikasketen diziplinan Nietzscheren animaliatasuna berrirakurtzeko saiakera erabat pertinentea eta baliagarria izaten jarraitzen duela frogatu nahi da. Bigarren atalarekin XIX. mendeko Giza eta Natur Zientziek animaliatasunaren inguruan diotena ezagutu nahi da Nietzscheren testuinguru intelektuala zehazteko. Hirugarren atala Animalia Ikasketetan Nietzscheren inguruan oro har egin diren ikerketen kritika da, hark animaliatasunaz egindako gogoeten ikerketa monografikoan oinarritua. Laugarren atalaren bidez Animalia Ikasketen diziplinak berezkoak dituen eztabaida eta erronkei (gizakiak ez diren animalien estatus morala, postmodernismoa, kritizismoa, posthumanismoa, antihumanismoa) ekarpenetan bihurtu nahi dira aurreko ataletatik ateratako ondorioak. Animalia eta gizakia kategoriak zalantzan jartzeak zentzua badu, hori bizi dugun garai bakar honek, ziurtasun gabea baina zeharo aberatsa, irekitzen dituen aukera ber-interpretaizailearengatik da batik bat. Biak izan eta izango baitira giza kolektiboen bizitza kulturala zimendatzeko ardatz nagusienetakoak. Ezin uler dezakegu nola marraz genezakeen gure post-humanitatea arlo tekno-zientifikoan, sozio-diskurtsiboan edo artistikoan kontzeptuok duten funtzionaltasuna ondo aztertu gabe, humanitatearen zutabe zaharrek inoiz baino zama gehiago dutela dirudien honetan. Aitzitik, komenigarria da urratsak ematen goazen heinean euren sendotasun paradigmatikoa ebaluatzea, eta hara non bihurtzen zaizkigun Nietzsche nahiz bere animalitasunari buruzko ikuspegia ezinbesteko.